

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO  
OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA ALDATZEKO  
LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

**KONTSULTA PUBLIKOA  
GIZARTE ZIBILAK EGINDAKO EKARPENAK**

**2019KO URRIA**

## **AURKIBIDEA**

<b>1. AURKEZPENA</b>	<b>1</b>
<b>2. GIZARTE ZIBILAREN PARTE-HARTZEA KONTSULTA PUBLIKOAREN FASEAN</b>	<b>2</b>
<b>3. GIZARTE ZIBILAK LEGE-AURREPROIEKTUAREN BIGARREN ZIRRIBORROAN EGINDAKO EKARPENEN SISTEMATIZAZIOA</b>	<b>3</b>
<b>3.1. Izaera orokorreko ekarpenen emaitza</b>	<b>3</b>
<b>3.2. Aurreproiektuaren artikuluetan egindako ekarpenen emaitza</b>	<b>5</b>

## 1. AURKEZPENA

Dokumentu honetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroaren lanketa-prozesuan gizarte zibilak izan duen partaidetzaren emaitzak jasotzen dira, eta hauek dira **HELBURUAK**:

1. Kontsulta publikoaren fasean proposamenak aurkeztu dituzten erakunde, elkarrizketarako espazio eta/edo pertsona guztiek Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak egin duen balorazioa ezagutu dezatela eta, hala badagokien, egin dituzten proposamen horiek lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroan nola txertatu diren egiaztatu ahal izatea.
2. Herritarrek eta eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalek informazioa izan dezatela gizarte zibilak kontsulta publikoaren fasean izan duen parte-hartzearen emaitzei dagokienez.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroaren lanketa-prozesuan gizarte zibilak izan duen partaidetza aitortzea eta haren garrantzia azpimarratzea.

### AURRETIKO GOGOETAK:

- ▶ Dokumentu honetan, **gizarte zibilak** kontsulta publikoaren fasean egindako ekarpenak aurkezten dira. Ekarpene gehiago ere egin dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroa hobetzen laguntzeko, Eusko Jaurlaritzaren sail eta koordinazio-organoen aldetik nahiz beste Administrazio Publiko batzuen aldetik. Azken ekarpen horiek orri hauetan ez jaso arren, jakinarazi behar da, oro har, **400 ekarpen** inguru jaso eta aztertu direla.
- ▶ Gizarte zibilak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege-aurreproiektuaren **lehen zirriborroa** oinarritzat hartuta egin ditu bere **proposamenak** eta, horri esker, etorkizuneko arau honen **bigarren zirriborroa** egin ahal izan da. Dena den, bigarren zirriborro honek ez du behin betiko izaera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen egiaztatze- eta izapidetze-prozesuak berak beste hobekuntza batzuk txertatzea ahalbidetuko baitu.
- ▶ Dokumentu hau idazteko orduan, tresna juridikoen beste pedagogia eta didaktika bat egitea izan da helburua, kontsulta publikorako fasean egindako proposamen batzuekin bat etorritz. Horrela, bada, erreferentzia batzuek izaera teknikoagoa izan arren, dokumentua herritar guztientzat eskuragarria izatea izan da asmoa.

### DOKUMENTUAREN EGITURA:

- ▶ Aurkezpenaz gain, informazioa bi bloketan egituratuta agertzen da. Lehenengoan modu sintetikoan deskribatzen dira gizarte zibilaren partaidetzari dagozkion ezaugarriak eta, bigarren blokean, berriz, proposamenak jasotzen dira, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak egin duen horien inguruko balorazioa barne.

## 2. GIZARTE ZIBILAREN PARTE-HARTZEA KONTSULTA PUBLIKOAREN FASEAN

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren lehen zirriborroa 2019ko martxotik maiatzera bitartean jarri zen jendaurrean. Kontsulta-fase horretan, **irekia** bidez egin ziren ekarpenak, baita posta arrunt bidez edo horretarako gaitutako posta elektronikoko baten bitartez ere.

Jarraian adierazten den taulan, egindako ekarpenen jatorria zehazten da. Hala eta guztiz ere, zehaztu behar da gizarte zibil gisa ekarpenak egin dituzten erakundeek, elkarrizketarako espazioen eta gizabanakoek kopurua ez datorrela bat egindako proposamenen kopuruarekin, oro har, erakunde batek hobekuntza bat baino gehiago egin ohi baitizkio jendaurreko fasean jartzen den testuari.

GIZARTE ZIBILA	PARTE-HARTZAILEAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEEN ETA ELKARRIZKETARAKO GUNEEN IDENTIFIKAZIOA
<b>ERAKUNDEAK ETA ELKARRIZKETARAKO GUNEAK</b>	<b>21</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Garaipen elkarte</li> <li>▶ Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea</li> <li>▶ Emakunderen Aholku Batzordea (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aholku Azpibatzaileen bidez)</li> <li>▶ Confebask (Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Genero Taldea)</li> <li>▶ Elkartean (Gutxitasun Fisikoa duten pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoko Federazio Koordinatzailea).</li> <li>▶ Eoncult Vitoria</li> <li>▶ Euskal gorrak (Gorren Elkarteen Euskal Federazioa)</li> <li>▶ Euskalit</li> <li>▶ FEVAS, adimen-urritasuna dutenen aldeko Elkartetako Euskal Federazioa.</li> <li>▶ Gizarterako</li> <li>▶ ONCE Gizarte Taldea</li> <li>▶ Bilboko Hermanas Oblatas (Leiho Zabalik programa)</li> <li>▶ ICAGI (Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa)</li> <li>▶ INFOPOLIS 2000 SL</li> <li>▶ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterra (Masterraren Zuzendaritza)</li> <li>▶ MSPE Euskadi (aukerako amabakarren elkarte)</li> <li>▶ Plazandreok</li> <li>▶ Prospektiker</li> <li>▶ SATSE EUSKADI (erizaintza-sindikatu)</li> <li>▶ CCOO sindikatu (Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren Genero Taldea)</li> <li>▶ UGT sindikatu (Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren Genero Taldea)</li> </ul>
<b>PARTE-HARTZAILE PARTIKULARRAK</b>	<b>5 emakume eta 2 gizon</b>	

### 3. GIZARTE ZIBILAK LEGE-AURREPROIEKTUAREN BIGARREN ZIRRIBORROAN EGINDAKO EKARPENEN SISTEMATIZAZIOA

Apartatu honetan, gizarte zibilak kontsulta publikorako fasean egindako ekarpenak aurkezten dira, horien **izaera orokorra** (testu osoari edo **titulu** edo **kapitulu oso** baten **edukiei** eragiten badie) edo **izaera espezifiko** (**artikulu** baten edo gehiagoren testuan eragiten badute) kontuan hartuta. Jasotako ekarpenei dagokienez, honako hau esan beharko litzateke horien aniztasuna eta zehaztaperen-maila direla eta:

- ▶ Ekarpena islatzen da, baita lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroan nola txertatuta geratzen den ere. Dena den, batzuetan ez da hitzez hitz txertatzen dokumentuan, irakurketa errazteko eta arintzeko helburuarekin.
- ▶ Ekarpen guztiak aztertu dira, baina dokumentu honetan ez dira ageri iritzi edo hausnarketa orokorrekin zerikusia dutenak, hau da, proposamen zehatz batean zertzen ez direnak.
- ▶ Lege-aurreproiektuaren zirriborroko artikuluen inguruan egindako ekarpenei dagokienez –halakoak izan dira gehienak–, honako hurrenkera honi jarraikiz agertzen da informazioa:

**Lehenengoa:** Proposamena zein kapitulutuan eta titulutan inskribatzen den identifikatzen da, eta aldatzea proposatzen den artikulua edo artikulua deskribatzen dira.

**Bigarrena:** Proposamenaren azterketa abiapuntutzat hartuta, artikulua aldatzea «egokia» den ala «desegokia» den adierazten da. Proposamenak artikuluetan zenbait aldaketa eragiten baditu eta horiek balorazio desberdina badute, proposamena «partzialki egokia» dela esaten da.

**Hirugarren:** Modu sintetikoan deskribatzen da Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak egiten duen proposamenaren balorazioa, «egokia», «desegokia» edo «partzialki egokia» zergatik den arrazoitzeko helburuarekin.

**Laugarrena:** Apartatuaren amaieran, taula batean jasotzen dira ekarpenak egin diren arauko kapituluaren eta tituluen izenak, ez baitira xehetasunez zehazten ekarpenak artikuluen testuinguruan jartzen direnean.

- ▶ Dokumentu honetan ez dira jasotzen akatsen inguruan egindako ekarpenak, baina zuzendu egin dira lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroan.
- ▶ Ez dira jasotzen indarrean den 4/2005 Legearen zioen azalpenari dagokionez egindako ekarpenak, zioen azalpena ezin baita aldatu, lege-aurreproiektuarena ez bezala; azken horretan aldaketak egin daitezke, baina ez da aldaketarik egin, ez baita harekin lotutako ekarpenik egin.

#### 3.1. IZAERA OROKORREKO EKARPENEN EMAITZAK

- ➔ **Lege-aurreproiektuaren titulua** aldatu da eta «emakumeen aurkako indarkeria matxista ezabatzea» ezabatu da, indarkeria hori ez baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen bakarra. Bestalde, lege-aurreproiektuaren tituluan ez da zehazten benetako berdintasunari erreferentzia egiten zaiola, printzipio orokorretan (3. artikulua) zehaztuta baitago berdintasunak Tratu Berdinari eta Aukera Berdintasunari erreferentzia egiten diola.
- ➔ **Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren terminoa** mantendu da, VII. Kapituluako tituluan ez ezik, testu osoan zehar ere, hura baita gaur egun adostasunik handiena lortzen duen terminoa. Dena den, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bere irizpena eman beharko du termino horren inguruan, ikuspuntu juridikotik.
- ➔ Oro har, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren «**biziraule**» terminoa erabili da, baita «**kontziliazio erantzunkide**» terminoa ere, eta ordezkatu egin dira beste adierazpen batzuk («talde» erabili da «kolektibo» beharrean, eta «pertsonek», «kide» beharrean).

- ➔ Testuan **sexuagatiko diskriminazioari** erreferentzia egiten zaionean, edozein eremutan, ulertzen da kontzeptu horrek barne hartzen duela aurreproiektuaren bigarren zirriborroko 3.1. artikuluko tartekian adierazten den diskriminazioa, eta beraz, ez da beharrezkotzat jotzen artikuluko guztietan errepikatzea. Honako hau dio tarteki horrek: «Euskadiko botere publikoek bermatu behar dute ezen diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla-eta diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarritzko eskubideak. Inguruabar horiek honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, sexu-identitatea, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial».
- ➔ 3.1. artikuluko azken tartekiak aurreikusten du dagoeneko **familiaren konfiguraziotik** eratorritako premia zehatzak aintzat hartu beharra, eta beraz, ez da beharrezkotzat jotzen testuko artikuluetan zehar puntu hau errepikatzea, guraso bakarreko familientzako neurri espezifikoek dagokienez.
- ➔ «**Kuadrillen**» erreferentzia gehitu da udalek emakumeen eta gizonen berdintasun arloan dituzten eskumenei erreferentzia egiten zaionean, mankomunitateen edo horiek osatzen dituzten bestelako elkarteetan bitartez.
- ➔ Elkarte pribatuen edo ekimen pribatuko elkarteetan izendapenak mantentzen dira eta hirugarren sektorea horien barnean sartzen dela ulertzen da, hura ezinbestekoa baita emakumeen aurkako indarkeria matxista hautemateko eta haren erreparaziorako.

## 3.2. AURREPROIEKTUAREN ARTIKULUETAN EGINDAKO EKARPENEN EMAITZAK

PROPOSAMENA/EKARPENA	EMAITZA	EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN BALORAZIOA
<b>ATARIKO TITULUA 1. art.- XEDEA</b>		
▶ Egiturazko ezberdintasuna eta sexuagatiko diskriminazio mota oro ezabatzeari erreferentzia egiten zaionean, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne hartuta, desgaitasunak eragindako diskriminazio anizkoitza ezaba dadila txertatzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Diskriminazio anizkoitza 3.1. eta 3.2. artikuluetan berariaz jasota dagoela uste da, bertan modu espezifikoan jorratzen baita irisgarritasun unibertsala.
<b>ATARIKO TITULUA 3. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK</b>		
▶ Ikuspuntu pedagogikoago batetik, 3. artikuluaen titulua –«Printzipio orokorrak»– aldatzea eta hari «Legearentzako funtsezko kontzeptuen definizioa» ezartzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Hasierako idazketa mantendu da, artikuluan kontzeptuekin eta definizioekin lotutakoak baino gai gehiago jorratzen baitira.
<b>ATARIKO TITULUA 3.1. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK. TRATU BERDINA</b>		
▶ Tratu-berdintasunaren printzipio orokorraren idazketa aldatzea eta zuzeneko diskriminazioak eragin ditzaketen egoerak areagotzea (sexu- eta genero-aniztasuna, adina, guraso bakarreko familiak eta abar).	EZ DA EGOKIA	▶ Zuzeneko diskriminazioaren definizioa dagoeneko finkatuta dago, aurreproiektuan aurreikusitako terminoetan, legez eta jurisprudentziaren aldetik.
▶ Zuzeneko diskriminazioaren definizioa emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan agertzen denarekin lerrokatzea (eta laneko jazarpenari bakarrik ez erreferentzia egitea).	EGOKIA DA	▶ Definizioak Europako zuzentarauetan oinarrituta daude, eta jazarpenaren kontzeptua lan-harremanen esparruan konfiguratu da. Dena den, «lanaren» erreferentzia ezabatu da, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoaren 7.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
▶ Guraso bakarreko familien ardura duten emakumeak txertatzea diskriminazio anizkoitza eragin dezaketen egoeren artean, Europar Batasunaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Konpromiso Estrategikoan (2016-2019) jasotzen den moduan.	EGOKIA DA	▶ Artikulua aldatu da, eta familia-konfigurazioa diskriminazio-egoerak eragin ditzakeen faktore bat dela txertatu da.
▶ Diskriminazio-egoerak sor ditzaketen faktoreen artean sexu-identitatea txertatzea.	EGOKIA DA	▶ Sexu-identitatea txertatu da 3.1. artikulua barne hartzen dituen faktoreen artean.
<b>ATARIKO TITULUA 3.1. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK. TRATU BERDINA, 3.2.- PRINTZIPIO OROKORRAK. AUKERA-BERDINTASUNA</b>		
▶ Printzipio orokorretan, Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioa kontuan izatea, bereziki desgaitasunak eta arrazoizko doikuntzek eragindako diskriminazioaren definizioei, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek aurre egin behar dieten diskriminazio anizkoitzei	EGOKIA DA	▶ «Aukera-berdintasunaren» printzipio orokorrari dagokion testua hobetu da Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioarekin lerrokatzeko helburuarekin. Zehazki:

<p><b>eta irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua txertatu beharrari dagokionez.</b></p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gehitu da Euskadiko botere publikoek berariaz bermatu beharko dituztela emakumeen edo emakume taldeen funtsezko eskubideak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk jazotzen diren esparruetan, eta sekzioen arteko ikuspuntutik jorratuko dela hori (3.1. artikulua).</li> <li>➤ Horretarako, zehazten da, Euskadiko botere publikoek behar bezala bermatuko dute irisgarritasun unibertsala, eta behar diren neurriak hartuko dituzte baliabideetan, zerbitzuetan eta prozeduretan arrazoizko doikuntzak egiteko, nazioarteko tratatuetan eta gai horretan aplikatzekoa den gainerako arauetan ezarritakoarekin bat etorritik (3.2. artikulua).</li> <li>➤ 10.2 e) artikulua aldatu da, eta diskriminazio anizkoitzeko egoerak kontuan izan beharraren aipamena txertatu da, desgaitasuna ikusgarriago egiteko.</li> </ul>
<b>ATARIKO TITULUA 3.3. art. - PRINTZIPIO OROKORRAK. ANIZTASUNA ETA EZBERDINTASUNA ERRESPETATZEA</b>		
<p>▶ <b>Euskadiko botere publikoetatik aniztasunarekiko eta ezberdintasunarekiko errespetua bermatzeko orduan, «familia-eredua» kontuan izan beharreko faktore gisa hartzea.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Familia-ereduarekin lotutako aniztasuna eta ezberdintasuna dagoeneko jasota daude «bizi-baldintzen» kontzeptuan, testuan agertzen den moduan.</p>



ATARIKO TITULUA 3.4. art. - PRINTZIPIO OROKORRAK. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA		
▶ Genero-ikuspegia txertatzearen definizioan, generoen arteko mendekotasun-harremanen hausnarketa txertatzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Erabilitako genero-ikuspuntua jasotzearen definizioa txertatuta dago nazioarteko eremuan, eta beraz, ez da egokitzen jotzen hura aldatzea.
ATARIKO TITULUA 3.5. art. - PRINTZIPIO OROKORRAK. EKINTZA POSITIBOA		
▶ Ekintza positiboko neurrien definizioa nabarmentzea, horien aldi baterako izaeran sakonduz.	EZ DA EGOKIA	▶ Ekintza positiboaren definizioa legez eta jurisprudentziaren bitartez finkatuta dago aurreproiektuan aurreikusten diren terminoetan, eta ekintza positiboko neurrien aldizkakotasuna ere jasota dago horien definizioan.
▶ Ekintza positiboaren interpretazioak, bertan jasota dagoen moduan, aplikazio-zailtasunak eragin ditzake erakunde pribatu batzuetan.	EGOKIA DA	▶ Aldatu egin da 2.4. artikulua, «Aplikazio-eremua», zehatzagoa izan dadin eta ekintza positiboak eta gainerako printzipio orokorrek eta 16. eta 18.4. artikuluek funts publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuentzat izan dezaketen irismena hein handiagoa zehaztu ahal izateko. Zehazki, honako hau ezartzen du: <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Euskadiko botere publikoren batekin kontratuak edo lankidetzahitzarmenak sinatzen dituzten entitate pribatuei, Euskadiko botere publikoen partaidetza dutenei edo botere publikoen laguntzen edo dirulaguntzen onuradun direnei, horien arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian, 3. artikuluan eta 16. eta 18.4 artikuluetan jasotzen diren printzipio orokorrak betetzeko eskatuko zaie.</li> <li>▶ Euskadiko botere publikoek berdintasun-klausulak txertatuko dituzte kontratuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan edo entitate pribatuekin funtsak transferitzeko egiten diren bestelako dokumentu batzuetan; aipatutako artikulua nola beteko diren zehaztuko da klausula horietan. Ezarritakoa bete ezean, aukera egongo da zehapenak ezartzeko, kontratuak edo hitzarmenak suntsitzeko edo jasotako diru-zenbatekoak gutxitzeko edo itzularazteko.</li> </ul>
ATARIKO TITULUA 3.7. art. - PRINTZIPIO OROKORRAK. ORDEZKARITZA OREKATUA		
▶ Ordezkaritza orekatuaren kontzeptuan «ekitatea» eta «parekotasuna» txertatzea, eta ordezkaritza orekatuaren kontzeptua aldatzea; horrela, bada, sexu biak ordezkatuta dauden lau kideetik gorako organoetan % 50ekoa izango da ordezkaritza, eta ez % 40koa (batik bat hauteskunde-zerrendetan).	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiagozat jotzen da ordezkaritza orekatuaren kontzeptua ez aldatzea, Europako eta Estatuko araudian zehaztutako kontzeptua baita, eta hura da adostasun gehien lortu duena. Gainera, ez da beharrezkotzat jotzen legeak hauteskunde-zerrendetarako emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez planteatzen duen sistema aldatzea, hura baliagarria izaten ari baita Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan emakumeen eta

		gizonen presentzia orekatua bermatzeko helburua lortzeko orduan, hain justu, EA Eren eskumenekoak diren hauteskundeetan.
<b>ATARIKO TITULUA 3.9. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA</b>		
<p>▶ <b>Emakumeen ahalduntzeari dagokion formulazioa berrikustea eta emakumeek beren ahalduntze-prozesuetan duten protagonismoa azpimarratzea, prozesu horiek bakarrak baitira, eta gizabanakoari, taldeari, gizaritari eta politikari dagokion ahalduntzea barne hartzea.</b></p>	<b>EGOKIA DA</b>	<p>▶ Formulazioa hobetu da, eta Euskadiko botere publikoek beharrezkoak diren baldintzak ezarri behar dituztela eta kasuan kasuko egokitzapenak egin behar dituztela aipatzen da, emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa errazteko, betiere horien aniztasuna kontuan hartuta.</p>
<b>ATARIKO TITULUA 3.10. art.- PRINTZIPIO OROKORRAK. PARTE-HARTZEA</b>		
<p>▶ <b>Partaidetzarako espazioetan eta bideetan irisgarritasun unibertsala kontuan izaten saiatzea, talde feministen eta emakume taldeen partaidetza eta elkarrizketa sustatzearen eta partaidetza horretarako balio duen «elkarleen sorrera» ezabatzearen arteko kontraesana aztertzea, eta, politika publikoak garatzen direnean, mugimendu feministaz gain, emakumeen elkarte-mugimendua, landa-eremuko emakumeak eta beste gizarite-eragile batzuk ikusgai egitea eta sustatzea.</b></p>	<b>EGOKIA DA</b>	<p>▶ Parte hartzeko gune eta bitarteko egokiak egokitu eta sortuko dira, irisgarritasun unibertsala bermatuko dutenak.</p> <p>▶ «Parte hartzeko eta elkarrizketarako guneen sorrerari» egiten zaio erreferentzia (24.5. artikulua), eta ez elkarte bat sortzeari, ez baitakigu partaidetzarako biderik egokiena indarrean den legeak planteatzen duen Kontseilua ote den, edo ordezkari aukerarik egokiena zein ote den.</p> <p>▶ «Taldea feministak eta emakume taldeak eta, oro har, herritar taldeak» terminoak emakumeen elkarteak eta landa-eremuko emakumeak barne hartzen dituela uste da. Dena den, 46.3. artikulua aldatu da eta aitortzen da botere publikoek ezabatu egin beharko dituztela landa-eremuko emakumeek partaidetzarekin lotuta dituzten oztupoak.</p> <p>▶ Gizarte-eragileen erreferentzia txertatu da.</p>
<b>I.TITULUA I. KAPITULUA 5. n) art.- AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN EGINKIZUNAK, 6. i) art.- FORU-ADMINISTRAZIOEN EGINKIZUNAK, eta 7. i) art.- TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN EGINKIZUNAK</b>		
<p>▶ <b>Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Foru Administrazioen eta Toki Administrazioaren emakumeen eta gizonen berdintasun arloko eskumenak areagotzea, horien bitartez, oinarriko gizarite-eskubideak bakarrik bermatu ez daitezela, bizitzako eremu guztietako eskubideak baizik.</b></p>	<b>EGOKIA DA</b>	<p>▶ Aipatutako artikulua aldatu dira eta zehaztu da, Autonomia Erkidegoko hiru administrazioen kasuan, emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko funtzioen artean, diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeen eskubideak bermatu beharko direla (ez da mugatzen oinarriko gizarite-eskubideetara).</p>
<b>I. TITULUA I. KAPITULUA 5. ñ) art.- AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN EGINKIZUNAK</b>		
<p>▶ <b>Enpresa publikoetan eta pribatuetan, adingabeen amentzako eta tutorentzako «benetako» kontziliazioa kontuan izatea, emakumei eta gizoni bizitza pertsonala, lana eta familia kontziliatzen laguntzeko gizarite- eta komunitate-arloko baliabideak eta zerbitzuak ezarri.</b></p>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	<p>▶ Bizitza pertsonalaren, lanaren eta familiaren kontziliazio erantzunkidearen kontzeptuak dagoeneko jasotzen du «benetako» kontziliazioaren ideia eta pertsona guztiei zaie aplikagarria, eremu</p>

		publikoan nahiz pribatuan.
<b>I. TITULUA II. KAPITULUA 10.1. art.- FORU-ADMINISTRAZIOAK, TOKI-ADMINISTRAZIOAK ETA BESTELAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK</b>		
<p>▶ Foru-aldundien eskumen-eremua inbaditzen den ala ez baloratzea, Autonomia Estatutuan jasotzen den moduan. Bertan jasotzen denez, foru-aldundiek, beren burua antolatzeke dituzten eskumenen eremuan, emakumeen eta gizonen artean berdintasun-politikak sustatzeko eta hedatzeko erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izan beharko dute gutxienez, eta zehaztasun-maila handiagoa izan behar dute erakunde, organo edo administrazio-unitate horietako langileen berdintasunari dagokienez (esaterako, biztanle kopuruaren arabera, egitura horietan berdintasunean espezializatutako zenbat pertsonak egon behar duten). Argudio-lerro horixe bera beste xedapen batzuetara eramatea proposatzen da, xedapen horiek Foru Aldundiek beren burua antolatzeke duten eskumenean eragiten dutenean (emakumeen eta gizonen berdintasunerako planetan, adibidez).</p>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	<p>▶ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak sustatzeko eta hedatzeko erakunde, organo edo administrazio-unitateen sorkuntzari buruz aurreikusitakoa jasota dago dagoeneko indarrean den berdintasun-legean. EUDELeK eta Foru Aldundiek ez dute alderdi hori zalantzan jarri beren ekarpenetan, eta beraz, ez da testua aldatu; zentzu horretan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak zer iritzi duen ikusi beharko da.</p> <p>▶ Toki-administrazioen eta foru-administrazioen eskumena da beren zerbitzuak antolatzea, eta beraz, lege-aurreproiektuan ez dira jasotzen erakunde, organo edo administrazio-unitate horietako langileei buruzko erreferentzia gehiago.</p>
<b>I. TITULUA II. KAPITULUA 10.2. art.- FORU-ADMINISTRAZIOAK, TOKI-ADMINISTRAZIOAK ETA BESTELAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK eta 11. art.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UNITATEAK</b>		
<p>▶ Lege-aurreproiektuaren bitartez, feminismoaren beste pedagogia bat sustatzea eta, bereziki, kontzeptuak argitzen sakontzea eta berdintasunari buruzko prestakuntza feminista egitea gizonei bideratuta.</p>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	<p>▶ Lege-aurreproiektuan aurreikusten da herritarrei bideratutako sensibilizazio-ekintzak egitea. Gainera, prestakuntzari buruzko artikuluek gizonentzako programak eta jarduketak egin beharra zehazten dute genero-ezberdintasuna lantzeko eta maskulinitasun matxistak eta indarkeriazkoak deseraikitzeke helburuarekin (52. artikulua).</p>
<b>I. TITULUA II. KAPITULUA 11. art. eta 11.3. art.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UNITATEAK</b>		
<p>▶ Administrazio publiko guztietan berdintasunerako administrazio-unitateak horren modu sakonean hedatu beharra baloratzea, eta arrazionalizazio administratiboarekin bateragarriagoak diren beste formula batzuk bilatzea.</p>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	<p>▶ Berdintasunerako administrazio-unitateak berdintasun-politikak zeharka garatzeko elementu gisa legitimatzen dituzten ebidentziak daude. Dena den, foru-aldundien eta udalen erreferentziak ezabatu dira, administrazio horiek autoantolakuntzako eskumenetan ez eragiteko.</p>
<p>▶ Autonomia Erkidegoko Administrazioari atxikitako edo lotutako erakunde autonomo eta bestelako erakunde publikoek posizio organiko eta eginkizun-erlazio egokiak izango dituzte, eta dagozkien xedeak lortzeko behar den aurrekontu-zuzkidura izango dute.</p>	<b>EGOKIA DA</b>	<p>▶ Aldatu egin da testua, hala, posizio organiko eta eginkizun-erlazio egokiak erakunde autonomoetako unitateei eta bestelako erakunde publikoei aplikagarriak zaizkiela argitzeko.</p>
<b>I. TITULUA III. KAPITULUA 14. art.- XEDAPEN OROKORRA</b>		
<p>▶ Hobeto zehaztuko da, udalerrri mailan, nola kalkulatu den aurrekontuaren % 1eko urteko esleipena emakumeen eta gizonen berdintasun-politiken garapenera.</p>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	<p>▶ Planteamendu orokorrago bat mantendu da, eta euskal administrazio publikoaren maila bakoitzari uzten zaio zehaztapenaren erantzukizuna. Ehunekoari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordean adostutakoa mantentzen da testuaren idazketan.</p>

II. TITULUA I. KAPITULUA 15.1. art., 15.2. art., 15.3. art. eta 15.4. art.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAK		
▶ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planetan zaintzak berariaz lantzea, Eusko Jaurlaritzaren planetan nahiz Foru Aldundien planetan.	EGOKIA DA	▶ Indarrean den EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean zenbait helburu espezifiko jasotzen dira zaintzen eta horiek betetzen dituzten pertsonen –emakumeak gehienetan– birbanaketari eta aintzatespen sozial eta ekonomikoari dagokienez.
▶ Plangintza-tresna horien lanketa-prozesuetan, diskriminazio anizkoitzak irudikatzen dituzten kolektiboan, gizarte-eragileen eta langileen lege-ordezkariei parte-hartzea kontuan izatea.	EGOKIA DA	▶ Testua aldatu da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiten direnean, botere publikoek modu egokian ahalbidetu dezaten diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten emakumeen, gizarte-eragileen eta langileen lege-ordezkariei interesen ordezkariei diren kolektiboek edo erakundeek presentzia izatea.
▶ Plan horien gutxienezko edukietan, ekintzak alde aurretiko diagnostikoarekin lerrotuta egongo direla eta horiek egiteko, ezartzeko eta herritarrei horien berri emateko behar diren baliabideak eta tresnak dituztela zehaztea.	EGOKIA DA	▶ Testua aldatu da eta, aurrerantzean, planek gutxienez helburu eta ekintza batzuk barne hartuko dituztela zehaztu da, horien ezarpen, jarraipen, ebaluazio eta kontuak emateko sistemaz gain, horien kasuan kasuko adierazleekin batera.
II. TITULUA II. KAPITULUA 16.2. art.- ESTATISTIKEN ETA AZTERLANEN EGOKITZAPENA		
▶ Errealitatera egokituko diren estatistikak eta azterketak egitea. Horretarako, azterketak eta estatistikak egiten direnean, eta adierazleak diseinatzeko eta datuak ustiatzeko eta hedatzen direnean, sektorearteko ikuspuntua eta aniztasunarekiko eta diskriminazio anizkoitzekiko (desgaitasunaren edo guraso bakarreko familien kasuan, adibidez) arreta txerta dadila proposatzen da.	EZ DA EGOKIA	▶ Diskriminazio anizkoitzeko egoerak jasotzen dira dagoeneko testuan, adierazleak diseinatuari erreferentzia egiten zaionean. ▶ Rolen eta estereotipoen deuseztapena, tratu-berdintasuna edo dibertsitatearekiko eta ezberdintasunarekiko errespetua, besteak beste, legearen printzipio orokorrak dira. 3. artikuluan jasotzen da printzipio horiek gidatu eta bideratu behar dutela emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko botere publiko guztien jarduketara, eta printzipio horiek aldatu dira dagoeneko kontsulta publikoan oinarrituz; horrela, bada, familia-konfigurazioa aipatzen da diskriminazio anizkoitzak sor ditzakeen faktore gisa.
II. TITULUA III. KAPITULUA 17.4. art. eta 17.5. art.- EUSKAL HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO LANGILEEN GAIKUNTZA		

<p>▶ <b>Berdintasunerako Eragilearen figura gehiago aintzatestea. Horretarako, proposamen hauek egiten dira:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Berdintasunean espezializatutako graduondoko unibertsitate-ikasketei, ikasketa feministei edo genero-arloko ikasketei dagozkien tituluak berriaz aintzatestea langile teknikoaren berdintasun-arloko gaikuntzaren berme gisa.</b></li> <li>▶ <b>Berdintasuneko langile teknikoek arduraldi eskusiboa eta lanaldi osoko dedikazioa ez izateko froga gisa har daitezkeen arazoak ezabatzea.</b></li> </ul>	<p><b>PARTZIALKI EGOKIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Aldatu egin da 17.4. artikulua, proposamenean planteatutako terminoetan (unibertsitate bidez lortutako gaikuntza espezifikaren aintzatespena).</li> <li>▶ Arrazoizkotzat jotzen da legeak salbuespenak onar ditzala dedikazio eskusiboko eta lanaldi osoko berdintasun-arloko langile teknikoaren premiarik eza behar bezala justifikatzen den kasuetan, langile gutxi dituzten toki-administrazio batzuek langile horiek kontratatu ahal izan ditzaten edo, langile horiek izanez gero, horien lana indartu nahi bada langile gehiago kontratatuz.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Berdintasuneko teknikarien lanpostuekin lotutako alderdiak -Funtzio Publikoaren eskumeneoak- Berdintasunari buruzko Lege batean jorrazteko moduak diren ala ez baloratzea.</b></li> </ul>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Planteatutako terminoetan mantendu da testua, Eusko Jaurlaritzaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak berdintasuneko teknikarien lanpostuei dagokienez zer iritzi duten ezagutu arte.</li> </ul>
<p><b>II. TITULUA IV. KAPITULUA 18.1. eta 18.3. art. XEDAPEN OROKORRAK 19.2. art.- GENEROAREN ARABERAKO ERAGINA AURRETIAZ EBALUATZEA ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurrien artean, herritarren segurtasunerako protokolo eraginkorrak eta autoestimu-tailerrak egitea emakumeen aurkako indarkeriaren bizirauleentzat.</b></li> </ul>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Tailerrak eta protokoloak egitearekin lotutako proposamenak ez daude lerrotatuta artikulua xedearekin.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Diskriminazio anizkoitzeko egoerak kontuan izatea (guraso bakarreko familia baten buru den emakumea, adibidez) inaktuaren alde aurretiko ebaluazioetan, araudiaren generoaren arabera, eta dokumentuetan eta euskarrietan erabilitako hizkuntzan eta irudietan.</b></li> </ul>	<p><b>PARTZIALKI EGOKIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Lege-aurreproiektuko printzipio orokorren aldaketak aintzatesten du dagoeneko familia-konfiguraziotik eratorritako diskriminazio anizkoitza sor dezakeen faktore gisa. Gainera, 18.3. artikulua berriaz aipatzen du faktore horiek kontuan izan beharra.</li> <li>▶ Dokumentuetako eta euskarrietako hizkuntzan eta irudietan hizkuntzaren erabilera barneratzaileari eta ez-sexistari erreferentzia egitea jasotzen da.</li> </ul>
<p><b>II. TITULUA IV. KAPITULUA 20.1.a) eta 20.1.d) art.- HAUTAPEN-PROZESUAK ETA EPAIMAHAIK</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ <b>Diskriminazio anizkoitzak (guraso bakarreko familien kasuan, adibidez) jasaten dituzten emakumeei lehentasuna ematen dieten klausulak txertatzea enplegu publikoko lanpostuetarako sarbidea izateko, lanpostuak betetzeko eta mailaz igotzeko hautapen-prozesuak arautzen dituzten administrazio-arauetan edo -egintzetan, izangaien gaikuntza-maila berdina izanez gero. Kasu horietan, adingabeak zaintzeko behar den babesa ematearekin lotutako neurriak ezartzea, guraso bakarreko familien kontziliazio-zailtasunak kontuan hartuta, baita amatasunarekin lotuta ere.</b></li> </ul>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Testua ez aldatzea erabaki da, batetik, proposamenean aplikazioak zailtasun praktikoak eragin ditzakeelako eta, bestetik, adingabeen zaintza haurdunaldi-, erditze- edo edoskitze-egoeren parekoa ez dela uste delako.</li> </ul>

## II. TITULUA IV. KAPITULUA 21.1. art., 21.3. art., 21.7. art. eta 21.9. art. - KONTRATAZIO PUBLIKOA ETA DIRULAGUNTZAK

- ▶ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzea esleipen-irizpideetan eta diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten kolektiboak (guraso bakarreko familiak sostengatzen dituzten emakumeak, adibidez) kontuan hartzen dituzten kontratu publikoetarako baldintza berezietan.
- ▶ Estatuko legerian jasotzen diren kontratazio-debeku zehatzak kontuan izatea (lege autonomikoaren aurreproiektuak partzialki jasotzen du erregulazio hori) eta legeak esleipen-irizpideei dagokienez ehunekoak ezartzeko duen egokitasuna kontuan izatea (emakumeen eta gizonen berdintasunerako baremo osoaren % 5) esleipen-organoa baita kasuan kasuko ehunekoa balora dezakeena eta baloratu behar duena.
- ▶ Sektore publikoarekin ez kontratatzeko berariazko debekuen artean, azken hiru urteetan lan-arloko zehapenen bat izan duten pertsona fisikoak eta juridikoak sartzea, baita langile-ordezkariekin adostutako berdintasun-plan bat ez dutenak edo pobrezia-aren prekarizazioa eta feminizazioa sustatzen dutenak ere. Gainera, honako hau txertatzea: Euskadiko botere publikoek ezin izango diete laguntzarik edo dirulaguntzarik eman diskriminazioa eragiten duten jardueri, eta ez sexuak eragindako diskriminazioa bakarrik, sexuarekin zuzenean lotutako egoerek eragindako diskriminazioa baizik, haurdunaldiak edo amatasunak, adibidez.

### PARTZIALKI EGOKIA

- ▶ Diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen eta 3.1. artikuluan xehatzen diren beste faktore batzuk jasaten dituzten emakumeen egoera bereziki kontuan izan dadila gehitu da.
- ▶ EAEk kontratazio-arloan dituen eskumenekin lotutako mugak kontuan izanik, 21.3. artikulua aldatu da eta honako hau zehaztu da: Euskadiko botere publikoek kontratazio-prozeduratik kanpo utziko dituzte Estatuko oinarritzko legerian kontratatzeko debekua ezarrita duten pertsona fisikoak eta juridikoak; horien artean, berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez konplizteagatik eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzearen arloko delitu edo zehapen irmoengatik jarritakoak.
- ▶ Ez da zehazten berdintasun-plana negoziazio kolektiboaren esparruan egin behar dela (hala aurreikusita dago 3/2007 Lege Organikoaren 45.2. artikuluan) eta ez dira lan-arloko zehapenak zehazten («administrazio-zehapenaren» kontzeptu generikoan jasotzen direla ulertzen da), ezta sexuagatiko diskriminazio-zehapena azken hiru urteetan gertatu denik ere (21.7. artikulua aurreikusten du dagoeneko klausula guztiak betetzen direla egiaztatzea beharra).
- ▶ Planteatutako terminoetan mantendu da 21. artikulua, EAEko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren haren legezketasunari buruzko erabakia ezagutu arte. Izan ere, planteatutako erregulazioa koherentea da kontratazio publikoan gizarte-irizpideak txertatzearen nahitaezko eta zeharkako betebeharrari buruzko printzipio orokorrek (Sektore Publikoaren Kontratazio Legea), eta kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen ordainsarien berdintasun-printzipiorako klausulak eta soldata-arrakalaren kontrako neurriak txertatzeari buruzko instrukzioen oinarritzen da (erabakia, gobernu-kontseiluarena, 2019ko martxoaren 5koa).
- ▶ Diskriminazioaren kontzeptuak (3.1. artikulua) sexuarekin lotuta dauden inguruabarretatik eratorritako diskriminazioak hartzen ditu barne dagoeneko, eta beraz, ez da berriz errepikatuko. Era berean, ez da kontuan hartzen «diskriminazio-egintzak gauzatzen dituzten» enpresak kontratatzearen debekua, 21.1. artikuluan oro har aurreikusten baita diskriminazio-arrazoiengatik zehatutako enpresak kontratatzearen debekua.

II. TITULUA IV. KAPITULUA 22. Art.-- PLAN SEKTORIALAK ETA/EDO ESTRATEGIKOAK		
<p>▶ Euskadiko botere publikoek, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzeko neurrien artean, diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten kolektiboentzako neurri zehatzak txertatzea, adibidez, guraso bakarreko familientzat, plan sektorialetan eta/edo plan estrategikoetan. Gainera, plan horiek ebaluatzean, datuak sexuaren arabera bereizteaz gain, informazioa familia-egoeraren arabera banatu dadila txertatzea.</p>	<p>PARTZIALKI EGOKIA</p>	<p>▶ Artikulua aldatu da, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen eta 3.1. artikuluan xehatzen diren beste faktore batzuk jasaten dituzten emakumeen egoera kontuan hartu ahal izateko. Egon daitezkeen planen aniztasuna dela-eta, datuak bereizteko orduan sexuaren aldagaia bakarrik hartzen da kontuan.</p>
III. TITULUA I. KAPITULUA 24.1. art., 24.2. art. eta 24.5. art. - ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK		
<p>▶ Emakumeek politika publikoetan eta genero-berdintasuna eraikitze eta sendotzeko orduan hizketakide gisa izan duten presentzia eta parte-hartzea kontuan izan direla aitortzen da. Gainera, herritarrei bideratutako emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko prestakuntza txertatzea proposatzen da, baita Euskadiko botere publikoek mekanismoak, espazioak eta gaikuntza berma ditzatela ere, elkarte-mugimenduaren elkarrizketak inpaktua izan dezan eta diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten kolektiboek (guraso bakarreko familiek, adibidez) parte har dezaten.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Herritarrei bideratutako prestakuntzaren proposamena txertatu da, baina 52.2. artikuluan, hau da, sentsibilizazioari eta prebentzioari erreferentzia egiten dion artikuluan.</p> <p>▶ Testua aldatu da, eta egindako ekarpenak txertatu dira: mekanismoen, denboren, espazioen eta gaikuntza-prozesu egokien egokitzapena, eta 3.1. artikuluan aipatzen diren eta horien parte-hartzerako oztopo bat izan daitezkeen diskriminazio anizkoitzaren faktoreak jasaten dituzten emakumeen premiak bereziki kontuan izatea.</p>
III. TITULUA II. KAPITULUA 25.1. art., 25.3. art. eta 25.4. art. - KULTURA-JARDUERAK		
<p>▶ Euskal administrazio publikoek, kultura-jarduera guztietan sexuagatiko diskriminazio oro saihesteko neurriak hartzeaz gain, sexuarekin zuzenean lotutako egoeretan ere - haurdunaldian edo amatasunean, adibidez- neurriak hartuko dituztela zabaltzea.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Lege honek sexuagatiko diskriminazioa eta emakumeek jasaten duten diskriminazio anizkoitza bakarrik arautu behar ditu.</p>
<p>▶ Kirol-arloko laguntza ekonomikoak areagotzeaz gain, genero-berdintasuna sustatuko duten arte- eta kultura-ekoizpenak sustatzeko laguntzak handitu daitezela kontuan izatea. Bestalde, diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten kolektiboek bideratutako arreta kontuan izango dela txertatzea, euskal administrazio publikoek emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko hartuko dituzten neurrien artean.</p>	<p>PARTZIALKI EGOKIA</p>	<p>▶ Aldatu egin da 25.3. artikulua, eta honako hau ezarri da: euskal administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute memoria historikoa berreskuratzeko eta kultura-jarduerak sustatzeko orduan, eta horretarako, laguntza publikoak ezarri edo lehendik daudenak egokituko dituzte.</p> <p>▶ 3.1. artikuluan zehazten da botere publikoek behar bezala bermatu behar dutela diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen faktoreak tartean direla- eta diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume taldeek beren oinarrizko eskubideak benetan baliatzen dituztela.</p>
III. TITULUA II. KAPITULUA 26.7. art. - GIZARTE-KOMUNIKABIDEAK ETA PUBLIZITATEA		
<p>▶ Zehaztea euskal administrazio publikoek sustatu behar dutela eduki sexistatik ez izatea eta Eusko Jaurlaritzak behar den prestakuntza sustatuko duela, komunikabideen eta publizitate-euskarrien bitartez hedatzen diren publizitatearen eta edukien inguruan aholku eman eta</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Testua aldatu da, eta Euskadiko botere publikoen erantzukizunari eta prestakuntzaren sustapenari buruzko ekarpenak txertatu dira.</p>

horiek aztertu behar dituztenek genero-ikuspegia txerta dezaten.		
<b>III. TITULUA II. KAPITULUA 27. Art.- PUBLIZITATEAREN ETA KOMUNIKABIDEEN AHOLKULARITZA- ETA KONTROL-ORGANOA</b>		
▶ <b>Publizitatearen eta komunikabideen aholkularitza- eta kontrol-organoaren eginkizuna berrikustea, haren benetako eginkizuna «zentsura» gisa ulertu ahal izan ez dadin.</b>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	▶ Komunikabideetan pertsonen duintasunaren aurkako edukirik ez ematea da helburua. Proposamenean aipatzen diren artikulua jasota daude indarreko araudian eta, bere momentuan, Konstituzio Auzitegiak horien konstituzionaltasuna aitortu zuen.
<b>III. TITULUA II. KAPITULUA 25. Art.- KULTURA-JARDUERAK 26. Art.- GIZARTE-KOMUNIKABIDEAK ETA PUBLIZITATEA eta 27. Art.- PUBLIZITATEAREN ETA KOMUNIKABIDEEN AHOLKULARITZA- ETA KONTROL-ORGANOA</b>		
▶ <b>Kulturari eta komunikabideei buruzko kapituluaren herriko festei erreferentzia zehatzagoa egitea, batik bat alardeei, baina baita erlijio-prozesioei ere, horien bitartez, sexuaren ziozko diskriminaziorik egin ez dadin.</b>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	▶ Legeak 25. artikuluan jasotzen du debekatuta dagoela gune publikoetan emakumeen parte-hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea, eta euskal administrazio publikoek ezin izango dutela inolako laguntzarik eman, edo administrazio horien ordezkariak ezin izango dutela jardueraren administrazioaren ordezkari gisa parte hartu kultura-jardueraren batean – hor sartuta jai kutsukoak–, horietan sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada.



III. TITULUA III. KAPITULUA 29.1. art. eta 29.2. art. - CURRÍCULUMA		
▶ Hezkuntza-administrazioak prestakuntzari eta ikerketari laguntzeko bere deialdietan bereziki baloratuko dituen proiektuen artean, bereziki diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten kolektiboen desberdintasunak ezabatzeko neurriak planteatzen dituztenak gehitzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Aurreproiektuaren idazketa mantentzea baloratu da, diskriminazio anizkoitza jasota baitago legearen printzipio orokorretan (3.1. artikulua).
▶ Hezkuntza-zentroyen eta berdintasuneko udal-zerbitzuen artean behar den koordinazioa indartzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista bere osotasunean jorrazeko helburuarekin (hezkuntza-zentroek indarkeria mota honen udal jarduketa-protokoloetan parte hartzea).	PARTZIALKI EGOKIA	▶ Honako hau gehitu da: hezkuntza-administrazioak bermatu egin beharko du hezkuntza-komunitatea kasuan kasuko toki-administrazioaren berdintasun-organoekin edo -unitateekin koordinatzen dela (31.2. artikulua) eta toki-administrazioek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko lankidetzak akordioak eta jarduketa-protokoloak sustatuko dituzte, errealitate hori bere osotasunean jorrazeko arreta-baliabide guztiak modu proaktiboan parte hartzen dutenean (62.3.).
▶ Hezkuntza-administrazioak sexu- eta genero-aniztasuna eta familia-ereduen aniztasuna barne hartu beharko dituela txertatzea, baita jarrera matxistei eta emakumeen gorputza erakartzeko elementu gisa erabiltzeari uko egin beharko diela ere (ez zalantzan jartzea), hezkuntza-curriculumaren hezkidetzak helburuen artean.	PARTZIALKI EGOKIA	▶ Jatorrizko idazketa mantendu da (29.1.a eta e artikulua), sexuaren araberako aurreiritziak, estereotipoak eta rolak ezabatzea baita helburua, eta ez patroi soziokultural berrietan oinarritutako beste batzuk sortzea. Era berean, egokiagozat jotzen da aurreproiektuan aurreikusitako idazketa, egindako gainerako ekarpenen kasuan.
III. TITULUA III. KAPITULUA 30.1. art. eta 30.2. art. - IRAKASKUNTZAKO MATERIALAK		
▶ EAEko hezkuntza-zentroetan, sexu batekoak edo besteak izateagatik edo familia-eredu bat edo bestea izateagatik giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela jasotzen duten irakaskuntzako materialaren erabilera debekatzen dela bermatzea, eta sexu- eta genero-aniztasuna eta familia-ereduen aniztasuna txertatzea EAEko hezkuntza-zentroetako irakaskuntza-materialetan, eta material horietan emakumeen erreferenteak gehitzea.	EGOKIA DA	▶ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lege bat izanik sexuagatik diskriminazioari bakarrik erreferentzia egin arren, egokitzat jotzen da 29.1. artikulua aldatzea eta sexu-aniztasunarekiko errespetua hezkidetzak helburu berri gisa eranstea. Gainera, artikulua horretan bertan erreferentzia egiten zaio hezkuntza-curriculumeko edukien berrikuspenari eta zuzenketari, emakumeen jakintzak eta horiek gizakiaren garapenean egin duten ekarpen soziala eta historikoa gehitzeko helburuarekin.
III. TITULUA III. KAPITULUA 31.1. art. - PERTSONAK ETA EGITURAK		
▶ Hezkuntza-orientabideaz arduratzen diren langileen hezkidetzak arloko gaikuntza espezifikoak aipatzea.	EGOKIA DA	▶ Hezkuntza-orientabideaz arduratzen diren organoen aipamen espezifiko bat gehitu da, eta hezkidetzan gaitutako langileak izango dituztela adierazten da.

III. TITULUA III. KAPITULUA 32.3. art.- PRESTAKUNTZA		
<p>▶ Hezkuntza-arloko profesionalei bideratutako etengabeko prestakuntza-eskaintzan genero-indarkeriaren prebentzioari, sexu- eta afektibitate-hezkuntzari eta familia-aniztasunari dagokion prestakuntza gehitzea, bizipenetan oinarritutako ikuspegi feminista batetik, eduki teorikoak eskaintzeaz haratago.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Hezkidetzaren prestakuntza orokorrak, aurreproiektu-testuan jasotzen denak, dagoeneko jorratzen ditu proposatutako edukiak. Gainera, prestakuntza eskaintzeko metodologiaren deskribapena zehatzegia da mota honetako testu arauemaileetarako.</p>
III. TITULUA III. KAPITULUA 28-33. art.- HEZKUNTZA		
<p>▶ Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren kapituluan, genero-ikuspegiaren prestakuntzak zer esan nahi duen zehaztu behar da. Horrela, bada, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen dituen berdintasun-masterrak aipatu behar dira eta legez feminismoari eta generoari buruzko graduak eta karrera guztietan genero-ikuspegia barne hartzen duten ikasgaiak eskatu beharra zehaztu behar da (batik bat zuzenbidearekin eta hezkuntzarekin lotuta daudenean).</p>	<p>PARTZIALKI EGOKIA</p>	<p>▶ Lege hau ez da tresnarik egokiena berdintasun arloko prestakuntzak nolakoa izan behar duen xedatzeko, ezta master zehatz batzuk berariaz aipatzeko edo graduak eta horien kasuan kasuko irakasgaiak zehazteko ere (unibertsitateen eskumena da hori). Dena den, 17.4. artikulua aldatu da berdintasun arloko gaikuntza aitortzeko helburuarekin, berdintasunean, ikasketa feministetan edo genero-ikasketetan espezializatutako graduondoko unibertsitatez kanpoko ikasketen tituluak eskuratuz.</p>
III. TITULUA IV. KAPITULUA LANA 34. art.- XEDAPEN OROKORRA, 35. art.- ERANTZUNKIDETASUNA		
<p>▶ Zaintzekin lotutako lana modu profesionalean betetzen duten pertsonen (gehienetan emakumeak) lan-baldintzei erreferentzia egitea eta zaintzen sistema publikoa indartzeko premian sakontzea.</p> <p>▶ Etxeko lanen barruan profesionalizatu gabeko zaintzekin lotutako epigrafe bat sartzearen egokitasuna baloratzea.</p> <p>▶ Guraso bakarreko familiak edo familia-kargak bakarrik bereganatzen dituzten pertsonak kontuan hartzea atsedeen- eta aisialdi-programetan, zaintzen dutenen atsedena ahalbidetzeko.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Lerrokada bat txertatu da 38.e) artikuluan eta honako hau dio: euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lan-baldintzen hobekuntza sustatuko dute zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzten sektoreetan.</p> <p>▶ Hainbat aldaketa txertatu dira testuan, hark zaintzen zentraltasunari dagokionez ikuspegi globalago bat izan dezan eta erantzunkidetasun sozialaren beharra barne har dezan (modu sintetikoan deskribatzen dira aldaketak):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Euskadiko botere publikoen aurrekontuak eta politikak diseinatzeko orduan, etxeko lanek eta ordaindu gabeko zaintzek eta horien funtzioak eredu sozial eta ekonomiko batera iristeko duten balioa kontuan izatea, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarritz (34.2. artikulua).</li> <li>➤ Euskadiko botere publikoek etxeko lanen eta ordaindu gabeko zaintzen erantzunkidetasun soziala sustatu behar dutela azpimarratzen eta sakontzen da (35. artikulua): zaintzen hornikuntza unibertsala eta publikoa, enplegu-egituren egokitzapena eta kultura eta jardun enpresarialaren eraldaketa, gizonek etxeko lanekin eta zaintzekin duten erantzunkidetasuna</li> </ul>

		<p>sustatzea eta zaintzen etika eta praktika orokortzea, norberaren nahiz beste pertsonen garapenerako eta ongizaterako bitarteko gisa, eta abar.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Egokitzat jotzen da 34.2. artikulua kokapena, atala etxeko lanei eta ordaindu gabeko zaintzei buruzkoa delako, baina alderdi hori zehaztu da artikuluetan.</li> <li>▶ Zaintzen zerbitzu publikoei buruzko gaiak modu xehatua jasotzen dira legearen III. Tituluko VI. Kapituluan; bertan, bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren arteko kontziliazio erantzunkideari egiten zaio erreferentzia, batik bat 49. artikuluan, bertan zaintzen hornidura unibertsalari eta publikoari egiten baitaia erreferentzia.</li> <li>▶ Guraso bakarreko familiak sostengatzen dituzten edo familia-kargak bereganatzen dituzten pertsonak bereziki kontuan izan daitezela txertatu da.</li> </ul>
<b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 37.2. a) eta b) art. - ENPLEGU-ZERBITZUAK</b>		
▶ Enplegu-zerbitzuetako eta horien erakunde kolaboratzaileetako langileek genero-ikuspegia txertatzeko moduari buruzko prestakuntza, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak tratatzeari eta artatzeari buruzko prestakuntza txertatzea.	<b>EZ DA EGOKIA</b>	▶ Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko prestakuntza modu orokorrean jasota dago 53. artikuluan.
▶ Kalitate oneko eta ondo ordaindutako enpleguetan eta presentzia txikiegia duten enpleguetan kontratatutako emakume kopurua handitzeko euskal administrazio publikoek sustatutako neurrien artean, hainbat diskriminazio-egoera jasaten dituzten emakumeen kontratazioa handitzea, bereziki guraso bakarreko familiak sostengatzen dituztenena.	<b>EGOKIA DA</b>	▶ 3.1. artikuluan aipatutako faktoreak betetzen dituzten emakumeak bereziki kontuan har daitezela txertatu da.
▶ Enplegu duin eta egonkorra azpimarratzea pobreziaren feminizazioa galarazteko bitarteko gisa.	<b>EGOKIA DA</b>	▶ Aurreproiektuan planteatutako neurriek enplegu duina lortzea eta pobreziaren feminizazioa saihestea dute helburu.

III. TITULUA IV. KAPITULUA 38. b) eta c) art.- ENPLEGUA LORTZEA ETA LAN-BALDINTZAK		
▶ Desgaitasuna duten emakumeen eta guraso bakarreko familiak sostengatzen dituzten emakumeen egoera kontuan izatea, horiek emakumeentzako kalitatezko enplegu egonkorren sustapen-programetan eta horien kontratazioan laguntzeko programetan parte har dezatela errazteko, baita batik bat emakumeek sustatutako enpresa-ekimenetarako laguntzak eskuratzeko ere.	EGOKIA DA	▶ Artikuluaren hasierako lerrokada aldatu da, eta honako hau gehitu da: emakumeek enplegu bat izan dezatela erraztea da helburua, batik bat diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen faktoreak jasaten dituzten eta legearen 3.1. artikuluan jasotzen diren egoeretan bizi diren emakumeek.
▶ Batik bat emakumeek sustatutako ekimenak lehenesten direnean -zenbait gastu finantzatzeko laguntzetara jotzen denean-, horien sarbidea muga daitekeen ala ez baloratzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Ez dira laguntzak mugatzen, eta «batik bat» emakumeen presentzia txikiegia duten lanbideak eta sektoreak eta ekonomiarako estrategikotzat jotzen direnak kontuan hartuko direla adierazi arren, ez dira beste aukera batzuk baztertzen.
III. TITULUA IV. KAPITULUA 39.1., 39.2. eta 39.3. art.-- PRESTAKUNTZA ETA KUDEAKETA AURRERATUKO PLANAK		
▶ Enpresen prestakuntza-planei laguntzak emateko deialdi publikoetan, emakumeak kontratatzen dituzten prestakuntza-ekintzak lehenetsiko direla aldatzea (eta ez emakumeei praktikak egiten lagunduko dieten prestakuntza-ekintzak).	EGOKIA DA	▶ Enpresen prestakuntza-planei laguntzak emateko deialdi publikoei buruzko testua aldatu da eta emakumeen sustapen profesionala erraztuko duten ekintzak lehenetsiko direla zehazten da, antolakuntzan emakumeen eta gizonen berdintasuna helburua izateaz gain.
▶ Emakumeek prestakuntza-ekintzetan parte hartzen dutela bermatzeko beharrezkoak diren laguntza-mekanismoak eta -zerbitzuak ezartzeko orduan, diskriminazio anizkoitzak jasaten dituzten emakumeak kontuan izatea, guraso bakarreko familiak, adibidez.	EGOKIA DA	▶ Emakumeek prestakuntzan parte hartzeko beharrezkoak diren laguntza-mekanismoak eta -zerbitzuak ezartzeko orduan, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen eta legearen 3.1. artikuluan jasotzen diren faktoreak jasaten dituzten emakumeak bereziki kontuan hartuko direla erantsi da.
▶ 39.3. artikuluan Euskaliti fundazio pribatu gisa egiten zaion erreferentzia juridikoki egokia den ala ez egiaztatzea, eta kalitatea kudeaketa aurreratuaren barnean sartzea.	EGOKIA DA	▶ Egokiagotzat jotzen da Euskalit, Kalitatearen Sustapenerako Euskal Fundazioa berariaz ez aipatzea, EAEko administrazioaren ekintza ez baldintzatzeko eta Euskalitekin lankidetzat aukera bat izan dadin, baina ez obligazio bat.

III. TITULUA IV. KAPITULUA 40.1., 40.2., 40.3., 40.4., 40.5. eta 40.6. art. - EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAK ETA POLITIKAK		
▶ Enpresetan egiten diren emakumeen eta gizonen berdintasunerako planen garapenari dagokionez, horiek alde zuzeneko diagnostiko egokiak izan behar dituztela, horien lanketa-prozesua pertsona langileen ordezkaritzarekin adostu behar dela eta, lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurrien artean, guraso bakarreko familientzako neurri zehatzak ezarri behar direla txertatzea.	EZ DA EGOKIA	▶ EAEk ez du lan-arloko legeak emateko eskumenik eta, beraz, enpresa pribatuei dagokienez, Estatuko legeriaren aipamena egitea planteatu da, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. eta 46. artikulua, hain zuzen ere, bertan, enpresetako berdintasun-planen lanketa eta edukiak arautzen baitira.
▶ Gehienbat euskal erakunde publikoen partaidetza duten 25 langile baino gehiagoko partzuergoek, fundazioek eta enpresek duten betebeharraren gehiegizko izaera hausnartzea, horiek zerbitzu bat izan behar baitute, langile espezializatuekin, erakunde barruan berdintasun-politikak garatzeko.	EZ DA EGOKIA	▶ Estatuko legeria berriak enpresa pribatuei ezartzen dizkien berdintasun-arloko betebeharrak kontuan hartuta, lege-aurreproiektuan aurreikusitako eskakizuna arrazoizkotzat jotzen da batik bat euskal erakunde publikoen kapitalarekin lagundutako enpresentzat.
▶ Estatuko araudi berriaren ondoren, enpresetan emakumeen eta gizonen Berdintasun Planen Erregistro bat badagoela kontuan izatea.	EGOKIA DA	▶ Enpresetan Berdintasun Planen Erregistro bat sortu beharra ezabatu da eta Estatuko araudira egokituko da, bertan ez baita aurreikusten maila autonomikoan planen erregistroak egin beharra.
▶ Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ezartzen dituen emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak garatzeko laguntzetan, lanketa horretan esku hartzen duten gizarte-eragileak sartzea. Gainera, laguntza horiek jasotzen dituzten enpresek diagnostikotik planera gauzatu eta negoziatu behar dituztela txertatzea, betiere langileen ordezkaritzarekin.	PARTZIALKI EGOKIA DA	▶ Honako hau txertatu da: Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak laguntzak emango ditu gizarte-eragileak eta enpresetako berdintasun-planen lanketan eta ezarpenean esku hartzen duten beste pertsona batzuk prestatu ahal izateko, baita prozesu horretan aholkuak emango dituzten pertsonak kontratatze ere. Bestalde, artikulua idazketa orokorragoa mantendu da, proposatutako gai batzuk jasota baitaude dagoeneko laguntzak arautzen dituen araudi espezifikoan.
▶ Berariaz adieraztea enpresa-erakundearen izena, Autonomia Erkidegoko Administrazioak ordainsarien alorreko diskriminazioari aurre egiteko bideratuko dituen baliabideek eragilearen artean, eta balioestea «konstituzio-kontrakotasun formal» bat ote den enpresa eta erakunde pribatuen ordainsarien alorreko gardentasun- eta berdintasun-printzipioa betetzeko berdintasun-baldintzak txertatzeko eskakizuna.	EGOKIA DA	▶ Enpresa erakundearen izenak txertatu dira, proposatutako zentzuan. Berdintasun-klausulen legezotasunari dagokionez, testua planteatutako terminoetan mantenduko da EAeko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak horren inguruko iritzia eman arte.
▶ Enpresa pribatuen berdintasun-arloko betebeharrak kooperatiba-sozietateak barne hartzen dituen ala ez argitzea.	EGOKIA DA	▶ Enpresaren kontzeptuak kooperatibak hartzen ditu barne eta, gainerako enpresen kasuan bezala, besteren konturako langile kopuruaren eta funts publikoak jasotzen dituzten ala ez kontuan hartuta ezarriko dira horien betebeharrak.
III. TITULUA IV. KAPITULUA 41. art. - ERAKUNDE LAGUNTAILEAK		
▶ Langileen ordezkaritzari egin beharreko kontsulta, lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak, eta guraso bakarreko familientzako neurri espezifikoak txertatzea Eusko	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiagozat jotzen da planteatutako gaiak erakunde laguntzailearen

Jaurlaritzak erakundeei eskatuko dizkien baldintzen artean –erakundeetako berdintasun-planen lanketarekin lotuta-, horiek emakumeen eta gizonen berdintasun-arloko erakunde kolaboratzailezt hartu ahal izateko.		irudia arautzen duen araudian jasota mantentzea, orain arte bezala.
<b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 42.1. art. eta 42.2. art.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA</b>		
▶ Hitzarmen kolektiboetan hizkera ez-sexistaren erabilera gomendio gisa adieraztea, eta ez obligazio gisa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere langileekin duen negoziazio kolektiboan langileen ordezkaritza hizketakide izendatzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiagoztat jotzen da testuaren jatorrizko idazketa mantentzea, batetik, 18.4. artikuluekiko koherentzia mantentzeko eta, bestetik, langileen ordezkariek negoziazio kolektiboan hizketakide direla ulertzen delako.
<b>III. TITULUA IV. KAPITULUA 43.4. art.- LANEKO OSASUNA</b>		
▶ Euskal administrazio publikoek sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren biktimei bermatu behar dizkien eskubideen artean, arreta jasotzeko eskubidea txertatzea.	EGOKIA DA	▶ Artikulua aldatu da, proposatu den moduan.
<b>III. TITULUA V. KAPITULUA 44.1 eta 44.4. art.- OSASUNA</b>		
▶ EAEko Osasun Sistema Publikoak emakumeei lagundutako giza ugalketarako erabateko eskubidea bermatuko diela txertatzea, horien egoera zibila, sexu-orientazioa, jatorria eta identitatea denak direla.	EGOKIA DA	▶ Artikulua aldatu da, eta euskal administrazio publikoek sexu- eta ugalketa-eskubideetatik eratorritako premiak estali behar dituztela gehitu da, lagundutako giza ugalketa bermatzeko programen bitartez, eta horien egoera zibila, sexu-orientazioa edo jatorria denak direla.
▶ Hezkuntzaren esparruan hezkidetzarekin gertatzen den bezala, osasunaren arloan ere genero-ikuspegia zeharka barne hartuko duen kontzeptu bat sortzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Ez da egokitzat jotzen, legearen bitartez, osasun arlorako kontzeptu berri bat sortzea proposatutako terminoetan, ez baitago hura sostengatuko duen hausnarketa doktrinalik edo alde zuzeneko praktikarik.
▶ Artikulu bat txertatzea eta, bertan, osasun-administrazioak emakumeen haurdunaldiarekin, erditzearekin eta puerperioarekin lotuta dituzten eskubideen eskutitza onartuko duela jasotzea, familia-ereduen aniztasunarekiko errespetua bermatuz.	EZ DA EGOKIA	▶ Ez da beharrezkotzat jotzen proposatutako konturako gutun zehatz bat onartzea.
▶ Artikuluan, langileen lantokietako osasunari buruzko aipamen bat egitea, lan-arriskuen ebaluazioetan genero-ikuspegia modu orokortuan txertatzen joan dadin.	EZ DA EGOKIA	▶ Langileen laneko osasuna jorratuta dago enpleguari buruzko kapituluan.

**III. TITULUA V. KAPITULUA 45.1 eta 45.2. art.- GIZARTERATZEA**

<p>▶ Euskal administrazio publikoek pobrezia eta gizarte-bazterketak emakume talde desberdinen artean duen intzidentzia handiagoren ondorioei aurre egiteko behar diren neurriak hartu behar dituztela esaten denean, guraso bakarreko familiak berariaz kontuan izatea, baita administrazio horiek behar diren neurri juridikoak eta ekonomikoak bultzatuko dituztela zehazten denean ere, prekaritate ekonomikoan dauden pertsonen baldintzak hobetzeko.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Puntu berri bat txertatu da guraso bakarreko familiei buruzko artikulua espezifikoa, eta egindako proposamenak txertatu eta hedatu dira.</p>
<p><b>III. TITULUA V. KAPITULUA 46.1, 46.2. eta 46.3. art.- INGURUMENA, LURRALDE-ANTOLAMENDUA, HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA, GARRAIOA ETA LANDA-EREMUA</b></p>		
<p>▶ Ingurumen, etxebizitza, urbanismo eta garraio arloetan politikak eta programak diseinatzen eta garatzen direnean, diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeak kontuan izatea.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Testuan gehitu da bereziki kontuan hartuko dela 3.1 artikuluan aipatutako faktoreak dituzten emakumeen egoera.</p>
<p>▶ Etxebizitzak esleitzeko orduan, diskriminazio anizkoitzeko kolektiboetako emakumeei lehenesteko tratua ematea, familiaren zama guztia gainean hartzen duten emakumeei, adibidez, baita emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ere.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Etxebizitzak esleitzeko orduan emakumeak lehenesteari dagokionez, aurreproiektua nahiko orokorra dela uste da, eta beraz, haren barnean sartuko lirateke familiaren zama gainean hartzen duten emakumeak. Gainera, egokiagoa da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako etxebizitzaren gaia VII. Kapituluaren arautzea (54.3. art.).</p>
<p><b>III. TITULUA VI. KAPITULUA. 47. art. -XEDAPEN OROKORRA</b></p>		
<p>▶ Gizonek etxeko lanetan duten erantzunkidetasunaz gain, zaintzak kontuan izatea.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Artikulua aldatu da, proposatutako zentzuan.</p>
<p><b>III. TITULUA VI. KAPITULUA. 48. 1., 48.3. , 48.4. art.- ENPLEGUAREN EGITURAK EGOKITzea ETA KULTURA ETA PRAKTIKA ENPRESARIALA ERALDATzea</b></p>		
<p>▶ Administrazio publikoetako langileen lan-denbora eta -espazioak malgutzeko eta berrantolatzeke neurriak enpleguaren kalitateari eta langileen eskubideei kalterik egin gabe gauzatu behar direla azpimarratzeaz gain, zerbitzu publikoa eskaini beharra adieraztea.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Testua aldatu da, proposatutako zentzuan.</p>
<p>▶ Euskadiko botere publikoek beren langileei iraupen bikoitzeko baimenak bermatu behar dizkietela gehitzea, guraso bakarrari, guraso bakarreko familien kasuan.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Jatorrizko testua mantentzea erabaki da.</p>
<p>▶ Honako hau gaineratzea: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak laguntzak emango dizkie etxeko beharizanei erantzuteko mendeko pertsonak eta seme-alabak zaintzeko eszedentziak, baimenak eta lanaldi-murrizketak hartzen dituzten langileei.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Artikulua aldatu da, proposatutako zentzuan.</p>
<p><b>III. TITULUA VII. KAPITULUA. 50.2. eta 50.3. art.- XEDAPEN OROKORRAK</b></p>		

▶ Emakumeen aurkako indarkeria matxista egiteko bitartekoak ordeztea, eta indarkeria hori gauzatzeko bitartekoak ezartzea.	EGOKIA DA	▶ Artikulua aldatu da, proposatutako zentzuan.
▶ Sexu-abusuak, bortxaketa eta sexuagatiko jazarpena ere emakumeen aurkako indarkeria direla ezartzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Sexu-abusuak, bortxaketa eta sexuagatiko jazarpena, besteak beste, sexu-indarkeriaren adierazpenak direla uste da, eta testuan jasota daude dagoeneko.
▶ Prostituzioan diharduten eta esparru horretan edo baldintza horietan indarkeria jasaten duten emakumeak sartzea, eta prozesu judizialean premisa hori emakumeen aurkako indarkerien arrazoi gisa erabili ez dadila txertatzea.	EZ DA EGOKIA	▶ Istanbulerako Hitzarmenean jasotzen diren moduek eta adierazpenek emakumeen aurkako indarkeria matxista eragiten dutela uste da.
▶ Genero-indarkeriaren biktimezako autoestimu-tailerrak egin eta emakumeen aurkako indarkeria matxista gauzaten dutenen kontrako «benetako» neurriak ezar daitezela txertatzea.	EZ DA EGOKIA	▶ 70.7 b) printzipio gidariaren arabera, biktimen premia desberdinak hartu behar dira kontuan sektorearteko esku-hartze publiko eta koordinatuaren esparruan. Autoestimu-tailer horiek testuinguru horretan sartzen direla ulertzen da, eta hala sartuta geratuko lirateke 57.1.b) artikuluan, azken artikulua horrek arreta psikosozialeko zerbitzuei egiten baitie erreferentzia, biktimek dituzten premien arabera.
<b>III. TITULUA VII. KAPITULUA. 51. art.- DATUEN IKERKETA, ERREGISTROA ETA HEDAPENA</b>		
▶ Psikologiako, psikiatriako, kriminologiako, soziologiako, historiako eta antropologiako profesionalak barne hartuko dituzten ikerketa-taldeek premia indartzea, arazoaren sustraia joango diren azterketa osatuagoak eta zehatzagoak egin ahal izateko.	EZ DA EGOKIA	▶ 5.1. artikulua eta hurrengoak behar bezala erantzuten diote azterketak proposatzen den moduan egin beharri eta, euskal administrazioek sustatu egingo dute emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arazoa eta ondorioak identifikatzeko kausa, ezaugarri eta zailtasunei buruzko ikerketa. Arauan ezin da zehaztu espezialitate kopuru hori duten diziplinarteko ikerketa taldeak daudenik, ikerketa-taldeek, proposamenean jasotzen diren profitez gain, medikuntzako, zuzenbideko, gizarte-lanetako eta beste diziplina batzuetako profesionalak dituzte indarkeriaren ikerketa ahalik eta ikuspuntu gehienetatik jorratu ahal izateko.
<b>III. TITULUA VII. KAPITULUA. 52.4. art.- SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA</b>		
▶ Elkarrekin sentsibilizazio- eta prebentzio-baliabide gisa hartuko dituen eta gizarte zibileko emakumeen parte-hartzea aurreikusiko duen artikulua bat txertatzea.	EGOKIA DA	▶ Aldatu egin da 24.3. artikulua eta, hala, honako hau adierazten da: aipatu elkarrekin (adibidez, emakumeen etxeekin) lankidetzan aritzeko bide publiko pribatuak bultzatuko dituzte, emakumeak ahalduz laguntzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak hautemateko eta biktimei lagun egiteko guneak errazteko.
<b>III. TITULUA VII. KAPITULUA. 53.1., 53.3. art.-- PRESTAKUNTZA</b>		



▶ Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako administrazioetako langile guztien hasierako eta etengabeko prestakuntza txertatzea, politikak eta programak diseinatzen dituzten langileak barne.	EGOKIA DA	▶ Idazketa aldatu da, proposatutako zentzuan.
▶ Toki- eta foru-poliziaren nahitaezko prestakuntza txertatzea emakumeen aurkako indarkeria matxistari dagokionez.	EZ DA EGOKIA	▶ Poliziaren nahitaezko prestakuntza jasota dago 53.1. artikuluan.
<b>III. TITULUA VII. KAPITULUA. 54.1. eta 54.5. art.- XEDAPEN OROKORRAK</b>		
▶ Biktimen detekzioari ez ezik, horien identifikazioari erreferentzia egitea, delituaren jazarpena eta errestituzioaren justizia aplikatzera bideratutako neurriak ezarri beharra bistaratzeko.	EZ DA EGOKIA	▶ Biktimen identifikazioa emakumeen eta nesken salerosketa-biktimentzat erabiltzen da funtsean. Errestituzioaren justiziarri dagokionez, ez da proposamena txertatu, oso konplexua delako, betiere genero-indarkeriako kasuetan bitartekaritza berariaz debekatuta dagoela aintzat hartuta.
▶ Indarkeria-egoeren detekzio-protokolo guztietan IRIS galdeketa txertatzea, arreta-eremu guztietan.	EZ DA EGOKIA	▶ Kasuan kasuko adierazleak eta jarduketa-jarraibideak barne hartzen dituzten protokoloak daudela eta aplikatzen direla jaso arren, ez da IRIS galdeketa berariazko aipamenik egiten, indarraldi mugatua izan dezakeen tresna zehatz bat delako.
<b>III. TITULUA VII. KAPITULUA. 56. art.- INFORMAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZU OROKORRAK</b>		
▶ Euskal administrazio publikoek prozesu osoan zehar konpainia emateko prestazioa bermatu behar dutela jasotzea, ibilbidea horren «neketsua» izan ez dadin.	EZ DA EGOKIA	▶ Proposamenaren interesa aitortu arren, arreta-sistema publikora sartzeko ateak eta biktimek arreta-sisteman sartzen direnetik izan ditzaketen ibilbideak kontuan izanik, zaila da ekarpen hau legean kokatzea eta zehaztea.

### III. TITULUA VII. KAPITULUA. 57. 1.e), 57.2. eta 57.3. art.- ARRETA ESPEZIALIZATUKO ZERBITZUAK

<p>▶ <b>Harrera-baliabideak eskura egongo direla berariaz jasotzea, indarkeria matxistaren biktime diren emakume desgaituak «egoitza-baliabideetan bizi» behar izan ez dezaten.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Testuaren 3.2. artikuluan jasotzen da Euskadiko botere publiko guztiek irisgarritasun unibertsala eta arrazoizko egokitzapenak bermatu beharko dituztela desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna errazteko. Gainera, 59. artikuluan berariaz aipatzen da desgaitasuna duten pertsonen etxebizitzarekin lotuta dituzten premiak kontuan izatea.</p>
<p>▶ <b>Euskal administrazio publikoek arreta espezializatuko zerbitzuak bermatu beharko dituztela gehitzea, haur eta nerabeez gain, emakumeen kargura dauden beste pertsona batzuentzat eta emakumeen aurkako indarkeria matxista hori gauzatzen den ingurunean bizi direnentzat.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Testua aldatu da, proposatutako zentzuan.</p>
<p>▶ <b>Euskal administrazio publikoek biktimeen ingurune maskoten eta bestelako animalien segurtasuna eta ongizatea zainduko dutela txertatzea, biktimek harrera-baliabide batean sartu beharra dutenean.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Ez da egokitzat jotzen testu arauemailean txertatzea, ez baita legearen eginkizuna alderdi hori zehaztea.</p>

### III. TITULUA VII. KAPITULUA. 58. 3. art.- PRESTAZIO EKONOMIKOAK

<p>▶ <b>Arreta sanitariorako xedatzen den moduan, bizirik irauteko oinarrizko premiei berehala aurre egiteko gizarte-zerbitzuetako urgentziako prestazio ekonomikoak jaso ditzaketen biktimek, beste prestazio ekonomiko batzuk izapidetzen diren bitartean, hala egin ahal izan dezatela adieraztea, beren administrazio-egoera dena dela.</b></p>	<p><b>EZ DA EGOKIA</b></p>	<p>▶ Kasu honetan ez da beharrezkotzat jotzen horrenbeste xedatzea eta nahikoa da 54.1. artikuluan egiten den aipamen generikoa.</p>
---	----------------------------	--

### III. TITULUA VII. KAPITULUA. 59.1., 59.2. eta 59.4. art.- ETXEBIZITZA, GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA ETA HEZKUNTZA

<p>▶ <b>Euskal administrazio publikoen aldetik emakumeen kontrako edozein indarkeria matxista mota pairatzen duten biktimei eta bizirauleei lehentasuna emango zaiela esaten denean, zeri lehentasuna emango zaion zehaztea.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Artikulua aldatu da, eta lehentasun hori funts publikoekin finantzatutako etxebizitzetan sartzeko izango dela adierazi da.</p>
<p>▶ <b>Araudian zehazten diren baldintzetan, kupoak edo bestelako neurriak ezarriko direla gehitzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek gizarteratzeko eta lanerako orientazio-zerbitzuak jaso ahal izan ditzaten.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Artikulua aldatu da, eta indarkeria matxistaren biktimek gizarteratze-eta laneratze-orientaziorako baliabideetan lehentasunezko tratua izango dutela adierazi da.</p>
<p>▶ <b>59.4. artikulua lerrokatzea Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioarekin, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek etxebizitza egokituak izateko aukera izan dezaten.</b></p>	<p><b>EGOKIA DA</b></p>	<p>▶ Artikulua aldatu da, eta desgaitasuna duten biktimeen irisgarritasun-premiak eta 65 urtetik gorako emakumeen etxebizitzak egokitzeko premiak kontuan izango direla txertatu da.</p>

### III. TITULUA VII. KAPITULUA. 60.3.b) eta c) art.- ARRETA POLIZIALA ETA JUSTIZIARAKO SARBIDEA

▶ <b>Autonomia Erkidegoko Administrazioak, salaketa jarri aurretik, lege-laguntza jasotzeko eskubidea bermatuko duela gehitzea.</b>	<b>EGOKIA DA</b>	▶ Testua zehaztu da proposamena oinarritzat hartuta.
▶ <b>Eginbiderik eza salatu den kasuen jarraipen zehatza noren aldetik eta nola egingo litzatekeen zehaztea.</b>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	▶ Artikulu hau proposatutako terminoetan zehaztea legearen eginkizunetik at geratzen dela uste da.
<b>III. TITULUA VII. KAPITULUA. 61. art.- ERREPARAZIO-ESKUBIDEA</b>		
▶ <b>Kaltearen erreparazio-eskubidea txertatzea, baliabide egokien eta irisgarrien bitartez, bizitza independente bat egin ahal izateko (etxebizitza irisgarria, baliabide ekonomikoak, laguntza pertsonala edo enplegua), etxebizitza bat eskuratzeko laguntzen bitartez, eta abar. Gainera, bizirauleentzako laguntza ekonomikoen bateragarritasuna arautzea eta emakumeen eskubideak eta horien seme-alaben eskubideak defendatzeko laguntzak ezartzea proposatzen da.</b>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	▶ Egindako proposamenak jasota daude beste artikulu batzuetan eta ez dagozkio kaltearen erreparazio-eskubideari, artikuluan jasotzen den moduan.
<b>III. TITULUA VII. KAPITULUA. 61. art.- ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA</b>		
▶ <b>Arreta-sistemaren barruan biktimen datuak partekatu daitezkeela jasotzen duen aurreikuspena txertatzea (erakunde desberdinen artean), baliabide bakoitzera zenbatek jotzen duten ezagutzeaz gain, horietako bakoitzak zein baliabide erabiltzen duen jakiteko, estatistika-informazioa osatuagoa izan dadin.</b>	<b>EZ DA EGOKIA</b>	▶ Proposamena interesgarria izan arren, zaila da biktimaren datuak arreta-sistemaren barruan partekatu ahal izateko (erakunde desberdinen artean) aurreikuspena testu arauemailerara eramatea, horien eskubideak urratu gabe eta une oro baimena behar izan gabe.

## **EKARPENAK EGIN DIREN TITULUAK ETA KAPITULUAK**

### **ZIOEN AZALPENA**

### **ATARIKO TITULUA**

<b>I. TITULUA</b>	ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAMENDUA ETA FINANTZAKETA	<b>I. KAPITULUA</b>	ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK
		<b>II. KAPITULUA</b>	ANTOLAMENDU INSTITUZIONALA ETA KOORDINAZIOA EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEAN
		<b>III. KAPITULUA</b>	FINANTZAKETA
<b>II. TITULUA</b>	EUSKAL ADMINISTRAZIO ETA BOTERE PUBLIKOEN JARDUNEAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO NEURRIAK	<b>I. KAPITULUA</b>	PLANGINTZA
		<b>II. KAPITULUA</b>	ESTATISTIKAK ETA AZTERLANAK
		<b>III. KAPITULUA</b>	LANGILEEN TREBAKUNTZA
		<b>IV. KAPITULUA</b>	ADMINISTRAZIOAREN ARAUDIAN ETA JARDUERAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK
<b>III. TITULUA</b>	ZENBAIT ESKU-HARTZE ARLOTAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK	<b>I. KAPITULUA</b>	PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA
		<b>II. KAPITULUA</b>	KULTURA ETA KOMUNIKABIDEAK
		<b>III. KAPITULUA</b>	HEZKUNTZA
		<b>IV. KAPITULUA</b>	LANA
		<b>V. KAPITULUA</b>	OINARRIZKO BESTE ESKUBIDE SOZIAL BATZUK
		<b>VI. KAPITULUA</b>	BIZITZA PERTSONALAREN, FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA
		<b>VII. KAPITULUA</b>	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA
		<b>VIII. KAPITULUA</b>	SEKTORE PRIBATUAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO ETA SEXUAN OINARRITUTA DISKRIMINAZIOARIK EZ EGITEKO PRINTZPIOAREN DEFENTSA

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA  
ALDATZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

